

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARMIÑONGO UDALA

Jendaurrean jartzea trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaindu behar dutenen 2020ko errolda eta zerga egutegia

Egin delarik trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2020ko errolda, jendaurrean jartzen da hamabost egun baliiodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten egokituz jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Udaletxera joan nahi duenak, COVID-19aren hedatzea saihesteko hartutako segurtasun neurriak direla eta, hitzordua eskatu beharko du aldez aurretik, 945365088 telefonora deituta edo aarminon@ayto.araba.eus posta elektronikora idatzita.

Epe hori igarota, erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onetsiko da.

TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ORDAINTZEKO EPEA:

A.) Borondatezko epea: 2020ko abuztuaren 3tik urriaren 3ra.

Helbideratutako ordainagiriak baimendutako finantza entitateetan kargatuko dira, 2020ko abuztuaren 10ean.

B.) Kobratzeko betearazte aldia: 2020ko urriaren 4tik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekaruak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Armiñon, 2020ko ekainaren 17a

Alkatea

JUAN MUÑOZ BARTOLOMÉ